

Erein ditugu haizeak...

Deia, 1984-12-20.

Haizeak ere ereiten dira, nonbait.

Orain arte ez zen hemengo lana; haizeak beste nonbait ereiten ziren, ez hemen; eta ekaitz beltzak ez ziren gure artean lehertzen, arerioen etxetan baiño; arerio horien artean gertatzen ziren eskandaluak, eta ez geure baserriko teilape ederraren babesean.

Gizonak, zuzenak, geuk genituen, sobera; geure aurka zeudenak ziren aitzakorrak.

Hau dena ametsetan ikus-entzun dudan zalantza sortu zait bat batean.

Orain gauzak alderantziz gertatzen hasiak bai dira. Hilabete luzeak dira geure artean salaketa beltzak eta etxetik kanpoko egozketak inauguratzen hasi ginela: Lehendabizi bermeotarrak, itsasora; gernikarrak, hurren, udaletxetik kanpora; gero Nafarrei heldu zitzaion ordua, eta ez honi edo hari, Nafarroa osoa jaurtiki zuten kanpora. Eta nagusikeriaren azkena zela uste genuenean, Euskadiko lehendakariaren aurkako eraso ilun-beltza montatu da.

Gure Herriak ez du ezer ulertzen, bai sufritzen.

Bitartean, PSOEko gorabehera handi eta burrunbatsuak hiru egunean konpondu dituzte Madrilen.

Geure kezkak bizirik diran.

Erei ditugu haizeak... Jainkoak daki zenbatekoak izango diren kalteak!